

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Hezkuntza Departamentuak 2,9 milioi euro bideratuko ditu 2011-2012 ikasturteko eskola-liburuak dohain izan daitezen

Programa derrigorrezko hezkuntzako maila guztietan ezarriko da, baita Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetan ere

Lunes, 16 de mayo de 2011

Nafarroako Gobernuak 2.901.303 euroko gastua onetsi du gaurko bileran 2011-2012 ikasturtean eskola-liburuak eta eskolako bestelako materiala dohain izan daitezen.

Aurreikusitako egutegiaren arabera, datorren ikasturtean Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetako ikasleek ere programan parte hartzeko aukera izango dute; horrek esan nahi du, derrigorrezko hezkuntzako ikasle nafar guztiek eskola-liburuak doan lortu ahal izango dituztela.

Foru Gobernuak Hezkuntza Ministerioarekin izenpetuko duen lankidetzaren hitzarmenaren testua ere onetsi du gaurko bileran. Horri esker, 1.059.000 euro emango dituzte eskola-liburuak doan eskuratzeko programa eta hitzarmenean jaso diren beste helburu batzuk finantzatzeko.

Eskola-liburuak doan lortzeko programa 2008-2009 ikasturtean jarri zen abian Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetan eta Bigarren Hezkuntzako 4. mailan. Programa abian jarri zen lehen urtean 17.1623 ikasle atera zioten etekina. 2009-2010 ikasturtean, programa Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako ikasleentzat eta Bigarren Hezkuntzako 1. mailako ikasleentzat ere jarri zen eskuragarri; hortaz, 19.138 ikasle lortu zituzten eskola-liburuak dohain.

Aurten, Bigarren Hezkuntzako 2. eta 3. mailetara zabaldu da programa, eta beste 15.111 ikasle gehitu dira. Datorren ikasturtera begira, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetako beste 13.373 ikasle gehituko direla aurreikusi da.

Programa hiru ikasturtetan ezarri da (2008-2009, 2009-2010 eta 2010-2011) eta guztira 9.359.018 euro inbertitu dira. Horrez gain, beste 2.914.799 euro ere bideratu dira oraindik programa abian izan ez duten derrigorrezko hezkuntzako ikasleentzat, eskola-liburuak eta eskolako materiala erosteko laguntza gisa.